DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA, PROZEDURA IREKI BIDEZ KONTRATATZEKO ERABILITAKO SUKALDEKO OLIOA KUDEATU ETA GAIKA BILTZEKO ZERBITZUA

AURKIBIDEA

I.- ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1.- KONTRATUAREN XEDEA
2.- KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA
3.- KONTRATUAREN IRAUPENA
4.- LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA
5.- FINANTZIAZIOA
6.- ORDAINKETA ARAUBIDEA
7.- PREZIOAK BERRIKUSTEA
8.- BEHIN BETIKO BERMEA

II.-- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9.- ADJUDIKATZEKO PROZEDURA
10.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOA
11.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK
12.- KONTRATATZEKO GAITASUNA
13. - ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK
14.- KONTRATAZIO MAHAIA
15.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA
16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA
17.- AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA
18.- ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA
19 - KONTRATUA EZ EGITEKO ETA PROZEDURARI UKO EGITEA

III.- KONTRATUA EGIKARITZEA

20.- KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA
21 . - KONTRATUAREN ARDURADUNA
22 . - KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK
23.- KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEI DAGOKIENEZ KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA
24.- KONTRATUAREN ALDAKETAK
25.- DATU PERTSONALEN BABESA
26.- LAN OSASUNA ETA SEGURTASUNA
27.- HIZKUNTZA BETEBEHARRAK
28.- LANAK HARTZEA ETA BERME EPEA
29.- KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK
30.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK
31.- AZPIKONTRATAZIOA

IV- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

32.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA
33.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK
34.- ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

I. ERANSKINA: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK
I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO DATUAK
II. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

I. ALDERDI OROKORRAK ETA KONTRATUAREN KONFIGURAZIOA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen arabera egiten den zerbitzu kontratuaren xedea izango da bide publikoko edukiontzietan zein garbiguneetan utzitako landare- edo animalia-jatorriko sukaldeko olio erabilia biltzea, instalaziora garraiatzea, bildutako olioa egokitzea eta kudeatzaile baimenduari entregatzea birziklatzeko edo balorizatzeko, agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoarekin bat etorriz.

Kontratu honen xedea lote bakar gisa konfiguratuta dago. Kontratazio espedientean jasotako Memoria Teknikoan bildu dira loteetan ez banatzearen arrazoiak.

CPV kodea: 90511200-4 (etxeko hondakinak biltzeko zerbitzuak) eta 90513000-6 (hondakin eta hondakin ez-arriskutsuak tratatzeko eta ezabatzeko zerbitzuak).

2. KONTRATATZEKO BEHARRAREN JUSTIFIKAZIOA

Kontratazio espedienteko memoria teknikoan azaltzen dira Mankomunitate hau plegu honetan aipatzen den kontratua egitera eraman duten arrazoiak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honek hiru urteko iraupena izango du, sinatzen den egunetik kontatzen hasita, eta kontratazio-organoak behin bakarrik luzatu ahal izango du urtebetez. Luzapena derrigorrezkoa izango da kontratistarentzat, betiere kontratuaren iraupen aldia amaitu baino gutxienez bi hilabete lehenago ohartarazten bazaio

.

4. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN AURREIKUSITAKO BALIOA

1.- **Urteko lizitazioaren oinarrizko aurrekontua** honako hau da:

Lizitazioaren zenbatekoa, BEZ kanpo	BEZ tipo aplikagarria: %	Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZ barne
9.240 €	**10 %**	**10.164 €**

SPKLren 100.2 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko, kontzeptu, gastu orokor eta mozkin industrial hauek hartu dira kontuan.

- Langileen kostuak:% 80
- Zuzeneko beste kostu batzuk:% 10
- Zeharkako kostuak:% 5
- Beste gastu batzuk: % 5

2.- Kontratuaren prezioa zehazteko sistema unitateko prezioena da. **Urteko lizitazioaren gehieneko prezio unitarioa honako hau da: 150 € bilketa-puntu bakoitzeko, gehi 15 € BEZaren % 10ari dagozkiona. Guztira: 165 € bilketa-puntu bakoitzeko.**

Lizitatzaileek prezio unitario hori beherantz hobetu ahal izango dute. Prezio unitario horretan gastu guztiak sartuta daude.

3.- **Kontratuaren balio zenbatetsia 200.124,40 €** da, honako xehetasun honen arabera:

- Olioaren gaikako bilketa eta kudeaketa: 9240 €/urtean x 4 urte = 36.960 €.
- Erabilitako olioaren balioa: 40.791,10 €/urtean x 4 urte = 163.164,40 €.

5. FINANTZAZIOA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, aurreikusita dago 2020ko ekitaldiko aurrekontuaren kargura finantzatzea, 3004.227.162.10.82 aurrekontu-partidan. Halaber, aurrekontu-arloko organo eskudunak dagozkion kredituak erreserbatuko ditu ukitutako etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan.

6. ORDAINKETA ARAUBIDEA

Kontratuaren prezioa hilero ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu eta onartzen denean.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 198. artikuluan aurreikusitako epeen barruan ordainduko dira fakturak.

SPKLren hogeita hamabigarren xedapen gehigarriaren arabera, eta dagozkion fakturetan jasota gera dadin, adierazten da kontabilitate publikoaren arloan eskumenak dituen administrazio-organoa eta kontratazio-organoa eta unitate hartzailea Debagoieneko Mankomunitatea direla.

7. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratu honetan prezioak ez dira berraztertuko, bat etorriz SPKLren 103.1 artikuluarekin.

8. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onenak aurkeztu dituzten lizitatzaileek behin betiko bermea jarri beharko dute kontratazio-organoaren eskura, kontratuaren lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 5ekoa, BEZik gabe (1.386 €).

Berme hori eratzeko epea izango da 17. klausulak aipatutako errekerimenduan adierazten dena, eta SPKLren 108. artikuluan ezarritako bideetako edozeinetan eratu ahal izango da. Eratu dela frogatzeko bide elektronikoak, informatikoak zein telematikoak erabili ahal izango dira. Lizitatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik baldintza hori betetzen ez bada, administrazioak ez du egingo haren aldeko adjudikaziorik.

Bermearen itzulketa edo baliogabetzea, guztizkoa nahiz partziala, hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 111. artikuluan

xedatutakoarekin bat etorriz egingo da, bermearen aldia agortzen denean eta adjudikaziodunak bere kontratuzko betebehar guztiak betetzen dituenean.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. ADJUDIKATZEKO PROZEDURA

Kontratu hau prozedura irekiaren bidez esleituko da, SPKLren 156. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, eta lege horretan eta lege hori garatzeko arauetan jasotako jarduketei jarraituko zaie izapidetzean.

10. LIZITAZIO ELEKTRONIKOA

Lizitazio hori baliabide elektronikoen bidez izapidetuko da, bat etorriz Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin. Ondorioz, Mankomunitateak lizitatzaileekin izango duen harremana ere bide horietatik izango da.

11. JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK

Espediente honekin lotutako jakinarazpen eta mezu guztiak elektronikoki egingo dira.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona natural nahiz juridikoek kontrataziorako prozedura honetan parte hartu ahal izango dute, jarduteko gaitasun osoa eta gaitasun juridiko osoa badute eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute. Gainera, ezin izango dira SPKLren 71. artikuluak kontratatzeko ezartzen dituen debekuetako batean ere sartuta egon.

13. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratu honen esleipena prozedura ireki bitartez burutuko da, kalitate-erlazio harremanik onenaren printzipioan oinarritutako adjudikatzeko irizpide ugari erabiliz.

Kontratua esleitzeko oinarri gisa erabili behar diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta esleitzen zaien haztapena honako hauek dira:

- Proposamen ekonomikoa:% 50.
- Proposatutako bilketa-ibilbideak eta -bitartekoak:% 20
- Bilketen trazabilitatea, pisatzea, karakterizazioa eta informazioa:% 10
- Bildutako olioaren kudeaketa:% 10
- Gehienezko betetzea eta bilketa-maiztasunak:% 5
- Isuriak eta edukiontziak garbitzea:% 5

1.- Balio judizio baten arabera kuantifikatzen diren irizpideak: 50 puntu.

• **Biltzeko ibilbideak eta bitartekoak. 20 puntu**, gehienez. Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

Egin beharreko lanetarako egokienak diren eta zama-ahalmen handiagoa duten ibilgailuak erabiltzea, eta, ondorioz, instalaziora deskargatzeko bidaia gutxiago egitea eta ibilbide bakoitzean bilketa eraginkorragoa egitea. Edukiontziak kargatzeko bitarteko hobeak eta eraginkorragoak dituzten ibilgailuak erabiltzea, langileek gehiegizko esfortzurik egin ez dezaten eta bide publikoan isuriak izateko arriskurik egon ez dadin. Bide publikoko seinaleztapen-elementuak, ibilgailuen identifikazioa eta langileen uniformetasuna, egin beharreko lanak hobeto ikusteko eta, beraz, trafikoarentzat, oinezkoentzat eta esleipendunaren langileentzat segurtasun handiagoa izateko. Proposatzen diren bilketa-ibilbideak, ibilbideko edukiontzi gehiago jaso ahal izateko. Kontratu honen xede den zerbitzurako esklusibotasun handiagoa duten bilketa-ibilbideak, beste eremu batzuetako edukiontziak nahastu gabe. Proposatutako ibilbideen eraginkortasun, efizientzia, koherentzia eta sinesgarritasun handiagoa, haien denborak eta egindako distantziak jaso beharreko edukiontzi-motarekiko, horien banaketa, proposatutako ibilgailuak, deskarga-zentrorako distantzia, beharrezko deskarga-kopurua, proposatutako langileak taldeko, arauzko atsedenaldiak, deskargen iraupena, joan-etorriak, puntuz puntuko bilketa-lanen iraupena edo beste faktore garrantzitsu batzuk.

• **Bilketen trazabilitatea, pisua, karakterizazioa eta informazioa. 10 puntu**, gehienez. Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

Bildutako edukiontzi bakoitza identifikatzeko prozedurak, edukiontzi horiek jasotzen direnetik pisatzen diren arte trazabilitatea hobekien ziurtatuko dutenak. Proposatutako baskulek eskaintzen duten bermerik handiena pisaketa bakoitzaren nahitaezko tikeak/egiaztagiriak behar bezala pisatzeko eta igortzeko. Edukiontzi bakoitzaren pisatze-irizpideei eta tiketak/egiaztagiriak entregatzeko maiztasunari eta moduari buruz ezarritako gutxienekoak hobetzeko proposamenak. Jasotako materialen karakterizazioei dagokienez ezarritako gutxienekoak hobetzeko proposamenak. Bilketa-lanen datuen edukiari, informazioa erregistratzeko moduari eta hauek entregatzeko moduari, formatuari eta maiztasunari buruz ezarritako gutxienekoak hobetzeko proposamenak.

• **Bildutako olioa kudeatzea. 10 puntu**, gehienez. Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

Bildutako olioa egokitzeko proposatutako eragiketak, bai eta horiek zaintzeko eta kontrolatzeko prozedurak ere, bildutako olio gordinaren ura eta ezpurutasun solidoak modu eraginkorrean ezabatuko direla bermatzeko, prozesuan kantitate gehiegi murriztu gabe. Prozesu osoaren trazabilitate-berme handiagoak, bilketa eta tratamendutik azken helmugaraino. Azken helmuga, bildutako olioaren birziklatze edo balorizazio energetikorako egokiena. Olioarekin batera bildutako beste hondakin batzuen kudeaketa eta trazabilitate egokia ahalik eta gehien bermatzea: hondakin solido organikoak, plastikozko ontziak, beirazko ontziak, motorreko olioak edo bestelakoak, eta tratamendu-instalazioko hondakin-urak behar bezala kudeatzea. Bildutako olioaren azken xedeari buruz eman beharreko informazioari eta egiaztagiri dokumentalei buruz ezarritako gutxienekoak hobetzeko proposamenak.

• **Gehienezko betetzea eta biltzeko maiztasunak. 5 puntu**, gehienez. Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

Edukiontzien gehieneko betetze onargarriari dagokionez ezarritako gutxienekoak hobetuko dituzten proposamenak, bai eta gehienezko betetze hori gaindituko ez dela ondoen ziurtatuko duten kontrol- eta jarraipen-sistemak ere. Ezarritako gutxienekoak hobetzen dituzten bilketa-maiztasunak edo beste proposamen batzuk, bilketa-puntu

bakoitzean edukiontziak betetzeko abiadura hobeto monitorizatzeko kontratuaren lehen 6 hilabeteetan (doikuntza-fasea).

• **Isuriak eta edukiontziak garbitzea. 5 puntu**, gehienez. Atal honetan alderdi hauek baloratuko dira:

Garbiketa eraginkor eta azkarreko berme handiagoak eskaintzen dituzten olio-isurien aurreko plana eta prozedurak. Baldintza teknikoen agirian horri buruz ezarritako gutxienekoak hobetuko dituzten edukiontziak eta isuriak garbitzeari buruzko proposamenak.

Zerbitzuak emateko proposamenean informazio garrantzitsurik ez izateak, zehaztasunik ezak, xehetasunik ezak edo inkoherentziak balio-judizio baten mende dauden irizpideen puntuazioan eragin negatiboa izango dute.

Lizitaziotik kanpo geratuko dira balorazio honetan gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten proposamenak.

2.- Automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak: 50 puntu.

• Bilketa-puntu bakoitzeko eskainitako unitateko prezioa: 50 puntu.

Eskaintza ekonomikoen puntuazioen kalkulua horien arabera egingo da, interpolazio lineal bidez, P1 (Gehienezko beherapena, Puntuazio maximoa) eta P2 (Zero beherapena, Puntuazio minimoa) puntuetan definitutako zuzenaren arabera, eta zuzen horren segmentuaren baitan, horien bidez mugatuta.

Hauexek dira puntuak:

P1 – Eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona (gehienezko beherapena). Gehieneko puntuazio bat emango zaio, maximoa, Pmáx puntuen berdina.

P2 – Prebentziozko mantentze lanen lizitazio motari dagokiona. Gutxieneko puntuazioa emango zaio, minimoa, honako formularen arabera dagokiona:

Gutxieneko puntuazioa: Pmin = Pmáx x (1- Bmáx*3)

Hala, Bmax = Gehienezko beherapena

Beherapentzat (B) joko da lizitazio motaren eta eskaintza ekonomikoaren arteko aldea, lizitazio motarekin zatituta.

Pmin-en kalkuluaren emaitza negatiboa bada, Pmin = 0 dela joko da.

Lehen definitutako zuzena lortzeko, onartutako oinarrizko eskaintzak soilik hartuko dira kontuan.

Hasiera batean, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat jo ahal izango da onartutako oinarrizko proposamen guztien baja-portzentajeen batez besteko aritmetikoa, gutxienez, 10 unitatetan gainditzen duen proposamen orori baja ematea, eta hori deklaratzeko, Kontratazio Organoaren erabakia beharko da, ustez bertan dauden lizitatzaile guztiei informazioa eskatu ondoren, baita dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa ere.

14. KONTRATAZIO MAHAIA

Kide hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

- Lehendakaria:
    - Mankomunitateko lehendakaria
- Mahaikideak:
    - Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoa
    - Mankomunitateko behin-behineko kontu-hartzailea
    - Mankomunitateko behin-behineko idazkaria
- Idazkaria:
    - Mankomunitateko behin-behineko idazkaria

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA ETA EZAUGARRIAK ETA PLEGUETARAKO SARBIDEA

Lizitazio hau Mankomunitate honetako kontratatzailearen profilean iragarriko da. Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren barruan dago.

Proposamenak elektronikoki aurkeztu beharko dira aipatutako plataformaren bidez, 15 egun naturaleko epearen baitan, iragarkia agertu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita eta adierazitako epealdiaren azken eguneko 14:00etara arte.

Mankomunitate honen kontratatzailearen profilera helbide honen bidez sartu ahal izango da: www.debagoiena.eus. Leku horretan bertan pleguak eta dokumentazio osagarria eskuratu ahal izango dira.

Lizitatzaileek pleguei edo agiri osagarriei buruz bestelako informaziorik eskatzekotan, eskaintzak jasotzeko ezarri den azken eguna baino sei egun lehenago emango da, betiere eskaintzak jasotzeko ezarri den epe hori amaitu baino hamabi egun lehenago gutxienez egin bada eskabidea.

Bat etorriz SPKLren 136.2 eta 3. artikuluan xedatutakoarekin, pleguei buruzko informazio gehigarria edo dokumentazio osagarria ezin izan denean adierazitako epeen barruan aurkeztu, edo eskaintzak lekuan bertan egindako bisita baten ostean edo pleguari erantsitako dokumentazioa *in situ* kontsultatu ostean soilik egin daitezkeenean, eskaintzak jasotzeko epea komeni bezain beste luzatuko da. Hala, ukitutako hautagaiek eskaintzak egin ahal izateko beharrezko informazio guztiaren berri izango dute.

Lizitazio prozedura honetan ez dira onartuko deskribatutako bide elektronikoetatik aurkezten ez diren eskaintzak. Ondorio horietarako, nahitaezko baldintza da Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman edo Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman izena emandako erabiltzailea izatea.

Eskaintza bateko dokumentuetako edozein ezin bada behar bezala ikusi, baimenduko da lizitatzaileak formatu digitalean aurkeztea akasdun fitxategian txertatutako

dokumentua, betiere 24 ordu igaro baino lehen. Geroago aurkeztutako dokumentuak ezin izango du inolako aldaketarik izan eskaintzan sartutako jatorrizkoarekiko. Kontratazio organoak egiaztatzen badu dokumentuak aldaketak izan dituela, lizitatzailearen eskaintza ez da kontuan hartuko.

Proposamenak Administrazio Baldintza Berezien Plegu honetan aurreikusitakora egokitu behar dira, eta horiek aurkezteak dakar lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horiek, salbuespen edo erreserbarik gabe, eta Mahaiari eta Kontratazio Organoari baimena ematea Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean datuak kontsultatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Halaber, ezin izango du aldi baterako enpresa elkartean antolatuta proposamenik sinatu bakarka sinatu badu, ez eta behin-behineko elkarte batean baino gehiagotan ageri ere. Arau horiek urratuz gero, lizitatzaileak sinatutako proposamen bat ere ez da onartuko.

Informazio publikoa eskuratzeari buruz indarrean dagoen legeriak eta adjudikazioa iragartzearen inguruan eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPKLren xedapenek diotena baztertu gabe, hautagai eta lizitatzaile horiek eskaintzarekin igorritako informazioa isilpekoa dela adierazi ahalko dute, batez ere, sekretu tekniko edo komertzialak eta eskaintzaren alderdi konfidentzialak aipatzen direnean. Mankomunitateak ezin izango du informazio hau zabaldu dagokion lizitatzailearen baimenik gabe.

16. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Lizitatzaileek **HIRU GUTUN-AZAL ELEKTRONIKO** aurkeztu beharko dituzte. Gutun-azal horiek lizitatzaileak edo horren ordezkariak sinatuta egon behar dira, eta bakoitzak jarraian xehatutako edukia izan behar du.

“A” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- “KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA”

Gutun-azal horrek honako dokumentu hauek izango ditu:

a) Gaitutako helbide elektronikoa.

Gaitutako helbide elektroniko bat aukeratzea, bat etorriz SPKLren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin. Helbide horretan egingo dira kontratazio espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. (I. eranskinaren gehigarria)

b) Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena

Adierazpen horretan, lizitatzaileak adieraziko du Administrazioarekin kontratuak egiteko legez ezarritako baldintzak betetzen dituela, bai eta baldintza-agiri honetan kontratua eskuratzeko ezarritako baldintzak ere. Deklarazioa Europako Kontratazio Agiri Bakarraren (EKAB) formularioari lotuko zaio.

Hala ere, kontratazio-organoak edo -mahaiak, prozedura behar bezala amaituko dela bermatze aldera, esleipena egin aurreko edozein unetan eskatu ahal izango du lizitatzaileek agiri honetan kontratuaren esleipendun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkez ditzatela.

c) Eskaintza aldi baterako enpresari elkarte batek (ABEE) aurkeztuz gero, kideetako bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du. Horrez gain, kontratuaren adjudikaziodun suertatzekotan ABEEa formalki eratzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, eta ABEE horretan bakoitzak izango duen partaidetza, egoera eta izenak zehaztu beharko dituzte.

d) SPKLren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko du.

Proposamenak aurkezteko epea amaitzean ikusiko da Legeak eta plegu honek eskatutako izaera, gaitasun eta kaudimen baldintzak bete diren ala ez; horixe izango da une erabakigarria.

“B” GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- "BALIO-JUDIZIO BIDEZKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK", honako dokumentazio honekin:

Gutun-azal honetan kontratuaren xede diren zerbitzuak emateko proposamenaren ezaugarri teknikoak, operatiboak, logistikoak, funtzionalak, antolamenduzkoak, langileenak, baliabide materialak edo beste garrantzitsu batzuk hobekien deskribatzen dituen informazioa sartuko da, bai eta lizitatzaileak alderdi horiek egiaztatzeko egokitzat jotzen duen dokumentazioa ere, balio-judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideak behar bezala ebaluatu ahal izateko.

Aurrekoari kalterik egin gabe, lizitatzaileek bilketa-zerbitzuak emateko proposatzen duten ibilgailu bakoitzaren fitxa tekniko osoa aurkeztuko dute, honako hauek barne: antzinatasuna, matrikula, argazkiak, neurriak, zamalanetarako bitartekoak eta ezaugarri teknikoak, baimendutako gehieneko masa, garraiatzeko gai den 240 L-ko edukiontzi-kopurua, ibilgailu titular edo erreserbako ibilgailu gisa proposatzen bada, eta horiei buruzko beste edozein informazio garrantzitsu. Era berean, pisatzeak egiteko proposatzen dituzten baskula edo baskulei buruzko informazio tekniko osoa aurkeztuko dute, baita pisaketa bakoitzaren nahitaezko tiketak/egiaztagiriak igortzeko ere.

Gogorarazten da zerbitzuak emateko proposamenean informazio garrantzitsurik ez izateak, zehaztasunik ezak, xehetasunik ezak edo inkoherentziak eragin negatiboa izango dutela balio-judizio baten arabera baloratu beharreko irizpideen puntuazioan, eta lizitaziotik kanpo geratuko direla balorazio honetan gutxienez 25 puntu lortzen ez dituzten proposamenak.

"C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA.- "BALORAZIO AUTOMATIKOKO IRIZPIDEAK"

Gutun-azal horrek baldintza-agiri honen II. eranskineko ereduaren araberako eskaintza ekonomikoa izango du.

17. AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA IREKI ETA TRATATZEA, ENPRESAK HAUTATZEA ETA ESKAINTZAK BALORATZEA

Proposamenak aurkezteko epea gainditu ondoren, honako jarduera hauek burutuko dira:

1º.- "A" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

Mahaiak "A" gutun-azala elektronikoki irekiko du, eta gutun-azal horretan jasotako dokumentazioa kalifikatuko du. SPKLren 141.2 artikulua aplikatuz, Mahaiak aurkeztutako dokumentuetan zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzen ditzaten.

Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzenketa-eskaerak Mankomunitateko kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere iragarriko dira.

2º.- "B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

"B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioa, balio-judizio baten araberako irizpideak jasotzen dituena, kontratatzailearen profilean argitaratzen den leku, egun eta orduan irekiko da, gutxienez 48 ordu lehenago.

3º.- "C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA IREKITZEA

"B" gutun-azalean jasotako dokumentazioa ireki eta baloratu ondoren, Kontratazio Mahaiak "C" gutun-azala irekiko du, Mankomunitateko kontratatzailearen profilean iragarritako tokian, egunean eta orduan.

Ekitaldi horretan, balio-judizio baten mende dauden irizpideei esleitutako balorazioa jakinaraziko da.

4º.- ESKAINTZEN SAILKAPENA

Irizpide guztiak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak aurkeztutako proposamenak sailkatuko ditu, handienetik txikienera, eta, dagozkion jarduketak egin ondoren, dagokion proposamena bidaliko dio kontratazio-organoari.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez du eskubiderik sortuko proposatutako lizitatzailearen alde, eta lizitatzaileak ez ditu eskuratuko Administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

LCSPren 149. artikuluan xedatutakoari jarraituz, proposamen bat edo batzuk anormalki baxuegitzat jo daitezkeela identifikatzen bada, eskaintza anormalki baxuegiak direla jotzeko, aurrez proposamena aurkeztu duen lizitatzaileari (edo lizitatzaileei, hala badagokio) entzun beharko zaio, eta dagokion zerbitzuaren aholkularitza teknikoa egin beharko da. Kasu horretan, lizitatzaileak emandako justifikazioa eta eskatutako txostenak aintzat hartuta, Kontratazio Organoak ekonomikoki onuragarriena den proposamena egiten duen lizitatzaileari egingo dio esleipena, Administrazioaren nahierara betetzeko modukotzat jotzen bada.

Aitzitik, Kontratazio Organoak eskaintza ezin dela bete uste badu balio baxu anormalak dituelako, sailkapenetik baztertuko du eta ekonomikoki onuragarriena den proposamenaren aldeko esleipena egingo du, proposamenak sailkatu diren ordenari jarraituz.

Egindako guztiaren berri emango da espedientean, derrigor idatziko diren aktetan jasota.

5º.- LEHEN SAILKATUARENTZAKO ERREKERIMENDUA

Kontratazio Organoak Mahaiaren proposamena onartu eta gero, kontratazio zerbitzuek errekerimendua egingo diote lehen sailkatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren ondorengotik kontatzen hasita, ondoren adierazten diren egintzak egiteko edo dokumentuak aurkezteko:

a) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordez jardunez gero, notarioaren ahalordea, Mankomunitate honek askietsia.

b) Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura edo, hala badagokio, aldaketarena, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, aplikatu behar zaion merkataritza legeriaren arabera inskribapena derrigorrezkoa denean. Hala ez balitz, jarduteko ahalmena duela egiaztatzeko, eraketa eskritura edo dokumentua, estatutuak edo sortze egintza erabiliko dira, jarduera arautzen duten arauak jasota, horiek denak dagokien Erregistro ofizialean behar bezala inskribatuta.

Europar Batasuneko kide diren Estatuetako enpresari ez espainiarrak direnean, enpresa duten Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute edo, aplikagarri zaizkien Europar Erkidegoko xedapenen arabera, zinpeko aitorpena edo egiaztagiria aurkeztu.

Atzerriko gainerako enpresaburuek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen Diplomaziako Misio Iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko Kontsuletxeko Bulegoaren txostena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotearen egiaztagiria, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, uneko ekitaldiari badagokio, edo JEZaren azken egiaztagiria gainerako kasuetan; eta kasu batean zein bestean erantzukizunpeko adierazpen bat ere emango da, aipatutako zergaren matrikulan baja emanda ez dagoela adierazteko.

d) Kaudimena frogatzea jarraian adierazitako aukera bietako baten bidez, lizitatzaileak hautatzen duena:

1. Kontratistaren sailkapena egiaztatzen duen agiria, R taldeko, 5. azpitaldeko, 1. kategoriako zerbitzuak kontratatzeko gaitasuna ematen diona.

2. Lizitatzailearen kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalaren frogagiriak, SPKLren 87. artikuluko a) letran eta 90. artikuluko a) letran ezarritako bitartekoen bidez. Aipatutako baliabideei dagokienez, enpresek kontratu zehatz honetarako bete beharko dituzten gutxieneko kaudimen-baldintzak honako hauek izango dira:

   Ekonomia- eta finantza-kaudimena: amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urtea gutxienez kontratuaren balio zenbatetsiaren halako bat eta erdi izango da.
   Kaudimen teknikoa eta profesionala: kontratuaren xede diren zerbitzuen izaera bera edo antzekoa duten zerbitzuen urteko zenbateko metatua, azken hiru urteetako exekuzio handieneko urtean, kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70ekoa edo handiagoa izan beharko da.

Bi kasu hauetan, honako hauek egiaztatzen dituen dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:
- Enpresa lizitatzaileak indarreko baimena duela olio eta koipe jangarrien hondakinak tratatzeko (EHZ 20 01 25)
- Proposatutako hondakinen tratamendu-eragiketak egingo diren instalazioek eta horien operadoreek baimena dutela urtean gutxienez 60 tona olio eta koipe jangarri (EHZ 20 01 25) kudeatzeko aipatutako tratamendu-eragiketen bidez.

e) Lizitaziora jotzeko hainbat enpresarik Aldi Baterako Enpresa Elkarte bat eratu badute, hori osatzen duten enpresetako bakoitzak bere ahalmena eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan ezarritakoaren arabera. Halaber, ABEEko kide bakoitzak xedearen zein proportzio egingo duen adieraziko du, guztien kaudimenaren gaineko baldintzak zehazte eta egiaztatze aldera.

f) Atzerriko enpresentzat, maila guztietako Epaitegi eta Auzitegi espainiarren jurisdikzioaren menpe jartzeko deklarazioa, kontratutik zuzenean edo zeharka ondoriozta daitezkeen gertakizun guztietarako, eta, dagokionean, lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko eginda.

g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea edo Kontratazio Organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzena lortzeko baimena ematea.

h) Behin betiko berme eratu izanaren egiaztagiria.

i) Laneko arriskuak prebenitzeari buruzko agiriak aurkeztea.

Aurreko a), b) eta d) letretan adierazitako inguruabarrak, kontratu honen xede diren hondakinak tratatzeko beharrezko baimenak izan ezik, Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroaren ziurtagiri baten bidez, Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri baten bidez edo Europar Batasuneko ziurtagiri baten bidez egiaztatu ahal izango dira, hori guztia SPKLren 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki egin ahal izango dira. Atal honetan aipatutako ziurtagiriak elektronikoki eman daitezke.

Errekerimendua adierazitako epe horretan betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza erretiratu duela joko da, eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren %3 eskatuko zaio, BEZa kanpo, zigor moduan. Hori gertatzen bada, eskaintzen sailkapenaren zerrenda hartu eta haren hurrengo lizitatzaileari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

Atal honetan aipatutako errekerimenduaren ondoren aurkeztutako dokumentazioak konpondu beharreko akatsak baldin baditu, hiru egun naturaleko epea emango da horiek zuzentzeko, eta zuzenean jakinaraziko zaio hori lizitatzaileari, eta Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da.

18. ADJUDIKAZIOA ETA FORMALIZAZIOA

Kontratazio Organoak dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunen barruan erabakiko du kontratua lehenengo sailkatuari adjudikatzea, SPKLren 150.3 artikuluan ezarritakoa aplikatuz.

Esleipena lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaie, eta erakunde honetako kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatuz egingo da eta, hala, agiri hori edozein erregistro publikotarako sarbidea izateko titulu nahikoa izango da. Hala ere, kontratistak eskatu ahal izango du kontratua eskritura publiko bihurtzea, dagozkion gastuak haren kargura izanik.

Kontratazio-arloko errekurtso berezia jar daitekeen kontratua denez, kontratua ezin izango da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro arte.

Kontratazio-organoak esleipendunari eskatuko dio gehienez ere bost eguneko epean formaliza dezala kontratua, horretarako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Errekerimendu hori aurreko zenbakian adierazitako hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren egingo da, kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkeztu ez bada. Berdin jokatuko da errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etendura kentzen duenean.

19. KONTRATUA EZ GAUZATZEKO ERABAKIA ETA PROZEDURARI UKO EGITEA

Bat etorriz SPKLren 152. artikuluan aurreikusitakoarekin, kontratazio organoak, behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiak tarteko, kontratua ez adjudikatzeko edo ez egiteko erabakia hartu ahal izango du. Horrez gain, prozedurari uko egin ahal izango dio kontratua prestatzeko arauak edo adjudikatzeko prozesua arautzen dutenak urratzen badira eta arau-hauste hori konpondu ezin bada. Kontratua ez egiteko nahiz prozedurari uko egiteko erabakiak kontratua formalizatu baino lehen hartu behar dira, eta bat etorri behar dira aipatutako artikuluan ezarritako baldintzekin.

III. KONTRATUA EGIKARITZEA

20. KONTRATUA EGIKARITZEKO ARAUBIDE OROKORRA

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara egikarituko da, plegu honetan eta baldintza teknikoen pleguan bildutako baldintzei lotuta, Mankomunitatearen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean. Mankomunitateak eskumen horiek idatziz zein ahoz baliatuko ditu.

Kontratistari edo bere mendeko pertsonei egozteko moduko ekintza edo hutsegiteen ondorioz arriskuan ipintzen bada kontratua behar den moduan betetzea, horretarako beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eskatu ahal izango du Mankomunitateak.

21. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratua adjudikatzeko erabakian Mankomunitateko teknikari bat izendatuko da kontratuaren arduradun gisa, eta kontratuaren egikaritzeari buruzko jarraibideak emateko eta berrikusteko ahalmenak izango ditu.

22. KONTRATUA EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1 artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau egikaritzeko honako egikaritze baldintza berezi hauek exijituko dira:

Ingurumenari lotutakoak:

1. Kontratu honen xede den zerbitzua emateko erabiltzen diren ibilgailuek "B" sailkapena izan beharko dute, gutxienez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren Ibilgailuen Erregistroan, emisioen arabera, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2016ko apirilaren 13ko Ebazpenarekin bat etorriz, 2016. urtean zehar trafikoa arautzeko neurri bereziak ezartzen dituena. (ebazpen horren bidez, 2016ko urtarrilaren 8ko Legearen lehenengo puntuko C.1 paragrafoa eta I., II. eta VIII. eranskinak aldatu egin ziren).

2. Bioerregai edo biolikido bihurtzeko olio erabiliaren kasuan, esleipendunak egiaztatu beharko du enpresak egiten duen olioaren kudeaketak betetzen dituela iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren erabilera sustatzeari buruz indarrean dagoen legeriak (2009/28/EE Zuzentaraua eta gainerako legeria aplikagarria) finkatzen dituen iraunkortasun- eta trazabilitate-irizpideak, indarrean dagoen ISCC ziurtagiria aurkeztuta

("International Sustainability and Carbon Certification") edo baliokidea. Esleipendunak kontratua indarrean dagoen bitartean ziurtagiri hori (edo baliokidea) indarrean mantendu beharko du, eta hori egiaztatzeko, dagozkion berritzeak aurkeztu beharko ditu egiaztapen-sistemak ezarritako aldizkakotasunean.

Gizarte arlokoak:

Kontratu honek bete egin behar ditu lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak.

Lizitatzaileek kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adierazi beharko dute, adjudikaziodun izanez gero.

Era berean, kontratua esleitu ondoren langile horiei benetan aplikatzen zaizkien lan-baldintzei buruz eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute.

Kontratua gauzatzen den bitartean, esleipendunak langileari dagokion lanbide-kategoriaren arabera aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan jasotako soldata ordaindu beharko du, eta ordaindu beharreko soldata ezin izango da inola ere hura baino txikiagoa izan.

Aipatutako baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharrak dira; horrenbestez, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke, aipatutako legearen 211.1.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako.

23. KONTRATUA EGIKARITU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK KONTRATISTAK DAUKAN ERANTZUKIZUNA

Bat etorriz, SPKLren 196. artikuluan xedatuarekin, kontratua betetzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz hirugarrenei kalte-galerak sortuz gero, kontratista izango da horien erantzule.

24. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Mankomunitateak interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango du kontratua, SPKLren 205. artikuluan berariaz aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen denean, lege horren 203., 206. eta 207. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta, betiere, horrekin lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatzen ez badira.

Lehen aipatutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat, baldin eta, banaka edo batera hartuta, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 gainditzen ez badute, BEZa aparte. Zenbatekoa dela eta, kontratistak ez badu derrigorrez aldatu behar, berariaz adierazi beharko du ados dagoela.

SPKLren 309. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilketa-guneen kopurua handitu ahal izango da, betiere gastua kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehiago handitzen ez bada, eta ez da beharrezkoa izango kontratua aldatzeko dagokion espedientea izapidetzea.

25. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honek datu pertsonalak eskuratzea badakar, kontratistak datuen babesari buruzko estatuko eta Europar Batasuneko araudia bete beharko du.

26. LANEKO OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Laneko arriskuak prebenitzeko araudi juridikoa eta teknikoa beteko du enpresak. Enpresa adjudikaziodunari enpresa jarduerak koordinatzeari buruzko dokumentazioa eskatuko zaio.

27. HIZKUNTZA BETEBEHARRAK

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarria, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea nahiz hura garatzen duten arauak. Besteak beste, EAEko administrazio publikoetan

euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, eta Debagoieneko Mankomunitatean ezarritako hizkuntza irizpideak (2013-2017).

Enpresa adjudikaziodunak Debagoieneko Mankomunitatearekin izan ditzakeen harreman idatziak nahiz ahozkoak (kontratuak, fakturak, txostenak, bilerak, kontsultak, eta abar) lantoki honetako lanerako hizkuntzara egokituko dira eta, horrenbestez, euskaraz izango dira edo, hala onesten bada, hizkuntza bietan.

Kontratua sustatzen duen administrazio unitatea izango da bertan ezarritako hizkuntza baldintzak betetzearen jarraipena egingo duena, gainerako baldintzen jarraipenaren antzera eta antzeko epeekin. Bada, horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari, eta azken horrek oniritzia emango du edo zuzentzeko neurriak proposatuko ditu.

Baldintzen plegu honetan jasotako hizkuntza baldintzak kontratuaren funtsezko betebeharra dira, eta horiek ez betetzeak gainerako baldintzen ondorio berdin-berdinak izan ditzake, hau da, zigorrak aplikatzea edo suntsiaraztea.

28. LANAK HARTZEA ETA BERME EPEA

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean, jasotzeko ekitaldi formal eta positiboa egingo da.

HIRU HILABETEKO berme epea ezartzen da, harrera egiten denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori berme gisa finkatzen da SPKLn eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako ondorioetarako. Epe horretan, kontratista berak egindako lan edo zerbitzuetan ager daitezkeen akats edo hutsuneen erantzulea izango da.

Epe hori administrazioak oztoporik jarri gabe igaro ondoren, erantzukizunetik aske geratuko da kontratista.

29. KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK KONTRATISTARI EZAR DAKIZKIOKEEN ZIGORRAK

A. Kontratua egikaritzeko epeak ez betetzea

Kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio, kontratua betearazteko epea betetzen atzeratuz gero, epe osoan zein, hala badagokio, epe partzialetan, administrazioak kontratua bertan behera utzi ahalko du, eta bermea galdu, edo zigorrak ezarri ahalko ditu; zigorrak 0,60 eurokoak izango dira eguneko, kontratuaren prezioaren 1.000 euroko tarte bakoitzeko, BEZa kanpo.

Atzeratu izanaren ondorioz ezarriko diren zigorrak kontratuak daukan prezioaren %5en multiploak badira, Kontratazio Organoak eskumena edukiko du kontratua suntsiarazteko; bestela, horrekin segitzea eta beste zigor batzuk ipintzea erabaki dezake.

B. Prestazioen egikaritzea partzialki ez betetzea

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratistak kontratuan definitutako prestazioen zati bat betetzen ez duenean, administrazioak bi aukera izango ditu: suntsiaraztea edo zigorrak jartzea. Zigorra kontratuaren prezio guztiaren ehuneko 10 izango da.

C. Oker burutzea

Prestazioa oker burutzen bada, administrazioak zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du kontratuaren prezioaren ehuneko 50 gainditu. Zigor horiek ez-betetzearen larritasunaren araberakoak izango dira. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

- **Falta oso larriak**
  - Bildutako materialen kudeaketan praktika txarrak egotea.
  - Aplikagarri den araudia betetzen ez duen ibilgailu batekin zerbitzua emateak, beharrezko ekipamendurik gabe edo kontserbazio- edo funtzionamendu-egoera

txarrean egonik, pertsonei edo ondasunei kalteak eragin diezazkiekeenean, emandako zerbitzuei kalte egiten dienean edo bildutako materialei kalte egiten dienean, haien balorizazioa zailduz.

- Oinarrizko edozein kontratu-betebehar ez betetzea, kontratua suntsiarazteko aukeraren kalterik gabe.

• Falta larriak

- Edukiontzien edo garbiguneen edukiera asetzea edo gainezka egitea.
- Edukiontziak barrutik edo kanpotik gaizki garbituta egotea edo horietatik gertu dagoen lurzoru, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.
- Erabiltzaileek zerbitzu horretan uzten dituzten materialak ez jasotzea, edukiontzien barruan zein kanpoan.
- Erregistroa ez egitea eta jasotako informazioa Mankomunitateak ezarritako irizpideen arabera ez aurkeztea.
- Zerbitzuan gertatutako gorabehera larriren baten berri berehala ez ematea.
- Sei hilean behingo deklarazioa eta harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio gehigarria kontratuan ezarritako irizpideen arabera ez aurkeztea.
- Bide publikoan materialak edo likidoak ustekabean isuri ondoren, berehala ez jasotzea edo ez garbitzea.
- Mankomunitateak zerbitzu horretarako berariaz instalatutakoak ez diren edukiontziak edo bilketa-bitartekoak zerbitzuan jartzea, bai eta baimendu gabeko publizitate- eta/edo propaganda-elementuen euskarri gisa edukiontziak erabiltzea ere.
- Bilduriko edukiontzi bakoitza ez pisatzea tike/egiaztagiri automatikoarekin, edo tike/egiaztagiriak kontratuan ezarritakoaren arabera ez aurkeztea.
- Kontratuan ezarritakoaren arabera bildutako materialen karakterizazioak ez egitea.
- Mankomunitateak berariaz baimendu gabeko puntuetan materialak deskargatzea.
- Kontratistari zerbitzuak kontrolatzeko eta jarraitzeko emandako ekipoak egoera txarrean egotea edo gaizki erabiltzea, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik.
- Banakako ontziak biltegiratzeko edukiontzitik/upeletik bilketa-ibilgailura edo beste edukiontzi batzuetara eramatea, jaso eta garraiatu bitartean, pisatu arte.

- **Falta arinak**
  - Arau-hauste arintzat hartuko da kontratuaren edozein ez betetze, baldin eta larritzat edo oso larritzat hartzen ez bada.

Falta arinengatiko zigorren zenbatekoa kontratuaren prezioaren % 4raino irits daiteke, falta larriengatik kontratuaren prezioaren % 7raino eta falta oso larriengatik kontratuaren prezioaren % 10eraino. Ez-betetzearen errepikapena kontuan hartuko da larritasuna baloratzeko.

D. Ingurumenari, gizarteari edo lanari buruzko betebeharrak ez betetzea

Ingurumenarekin, arlo sozialarekin edo lan arloarekin lotuta kontratistak dituen betebeharrak bete ezean, bereziki soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata baldintzen aplikazioa larria eta dolozkoa bada, Mankomunitateak, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

E. Azpikontratatzaileekiko betebeharrak ez betetzea

SPKLren 217. artikuluan xedatutakoa gorabehera, kontratatzaileak ez baditu betetzen azpikontratatzaileekiko dituen betebeharrak, administrazioak zigorrak ezarri ahal izango ditu. Zigorra kontratuaren prezio guztiaren ehuneko 10 izango da, BEZa kanpo, eta zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.

30. KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 211. eta 313. artikuluetan ezarritako arrazoiengatik suntsiarazi ahal izango da zerbitzu kontratua.

31. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin azpikontratatu ahal izango du prestazio honen emakida partziala. Edonola ere, azpikontratazio hori Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 215. eta 216. artikuluetako baldintzak betetzearen mende egongo da.

IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

32. KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu hau oinarri hartuta egiten den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta plegu honen eta baldintza teknikoen pleguaren bidez arautuko da. Bertan aurreikusten ez den guztiari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoari jarraituko zaio, eta lege horrekin kontraesanik ez duen guztiari dagokionez, honako hauetan ezarritakoa aplikatuko da: Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrean (urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bidez onetsian), maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (horren bidez garatzen da partzialki Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea) eta administrazio publikoen kontratazioan aplikagarri diren gainerako arauetan.

Administrazio Baldintza Berezien Plegu honen eta espedienteari erantsitako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak badaude, plegu honetan xedatutakoa nagusituko da.

33. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK

Mankomunitateari dagozkio kontratua interpretatu, betetzeko orduan sortzen diren zalantzak ebatzi, interes publikoa dela eta aldatu, kontratuaren egikaritzeagatik kontratistari egotzi ahal zaion erantzukizuna aitortu, egikaritzea eten, suntsiaraztea erabaki eta horren ondorioak zehaztea, betiere SPKLk eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako mugen eta horien baldintza eta ondorioen arabera.

34. ESKUMENA DUEN JURISDIKZIOA

Kontratu honetatik eratorri daitezkeen gai eztabaidagarriak Kontratazio Organoak ebatziko ditu. Organo horren erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean zuzenean aurkaratu ahal izango dira. Eta hala badagokio, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 44. artikulutik 60.era artekoek araututako kontratazioaren arloko errekurtso berezia jarri ahalko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak araututako beste edozein.

EGINBIDEA.- Plegu hau Mankomunitateko gobernu Juntak onartu zuen 2020ko apirilaren 28an egindako bilkuran.

Arrasaten, 2020ko urriaren 15ean.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

MARIA BELEN CHINCHURRETA IPARRAGUIRRE
C=ES, O=DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA-MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA, OU=51, OU=IDAZKARIA, OU=Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido, OU=Entitate publikoen ziurtagiri - Certificado de entidad publica, OU=Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko, dnQualifier=-dni 15359802B -cif P2000001D, CN=MARIA BELEN CHINCHURRETA IPARRAGUIRRE, G=MARIA BELEN, SN=CHINCHURRETA, SERIALNUMBER=15359802B
2020-10-15 11:55:12

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK

I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA.

1. Kontratatzeko prozeduraren izapideetarako (dokumentuak bidaltzea, kontratua sinatzea, jakinarazpenak jasotzea...) lizitazio elektronikoko sistema erabiltzeko baldintzak

1.1. Administrazio baldintzak:

a) Izapidetze elektronikorako Debagoieneko Mankomunitateak baimendutako ziurtagiri digitala izatea. Gaur egun ziurtagiri elektroniko horiek honako hauek dira:

- Izenpe (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- FNMT (Entitatea, Herritarra, Entitatearen ordezkaria).
- e-NAN
- Camerfirma (entitatea, herritarra)

b) Horrelako egoeraren batean egotea:

a) Euskadiko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan alta emanda izatea eta indarrean dagoen ziurtagiria izatea

b) Lizitazio elektronikorako aldi bateko gaikuntza sisteman alta emanda izatea.

c) Operadore ekonomiko bi edo gehiago elkarrekin aurkezten badira lehiaketara, modu formalean ABEE gisa eratzeko konpromisoarekin, ABEEren konpromisoa aldi bateko gaikuntza sisteman erregistratuta egon behar da.

1.2. Baldintza teknikoak:

Elektronikoki izapidetzeko baldintza teknikoei buruzko informazioa esteka honetan dago eskuragarri:
http://www.contratacion.euskadi.eus/w32-content/es/contenidos/informacion/licitar_electronicamente/es_02/requisitos_tecnicos.html

1.3. Lizitazio elektronikoari buruzko gorabeherak edo zalantzak argitzeko euskarri zerbitzua: 945016298.

2. Lizitazio elektronikoko sistemara sartzeko era:

Sistema erabiltzeko honako atari honetara jo behar da:

www.contratacion.euskadi.eus

II.- JAKINARAZPEN ETA MEZU ELEKTRONIKOAK.

Jakinarazpen eta mezu elektronikoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez egingo dira. Hona hemen sarbidea: https://egoitza.gipuzkoa.eus/es/. Jakinarazpenak edo mezuak bidaltzen diren bakoitzean enpresak bidalketari buruzko abisua jasoko du **I. eranskin** honen **gehigarrian** horretarako emandako helbide elektronikoan.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

I. ERANSKINAREN GEHIGARRIA.- JAKINARAZPENAK ETA MEZUAK JASOTZEKO DATUAK

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, izena	**NAN-IFZ**

	Norbere izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean
	Ordezkatuaren izen soziala:
	Ordezkatuaren IFK:

* Enpresen aldi baterako elkarteen kasuan, eredua egokitu ABEE sortuko duten enpresa bakoitzeko ordezkari guztien datuak gehitzeko.

AITORTZEN DU(TE)

Kontratua adjudikatzeko prozedurarekin (izendapena eta espedientearen kodea) loturako jakinarazpen eta mezuen ondorioetarako:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena	**Erreferentzia kodea**
Erabilitako sukaldeko olioa gaika biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua	Zerbitzuak 2020/03

Jakinarazpenak eta mezuak elektronikoki egitearen ondorioetarako datuak honakoak dira[1]:

JAKINARAZPENETARAKO ETA MEZUETARAKO DATUAK

Kalea/Plaza/Etorbidea/...	**Zk.**	**Pisua**	**Aldea**
Udalerria	**PK**	**Probintzia**	
Telefono zenbakia	**Mugikorra**		
Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa:			
Hartzaile izango den pertsona:			

Jakinarazpena/mezua jasotzeko hautatutako hizkuntza:	Euskara		Gaztelania	

1 *Adjudikaziodun suertatzekotan hainbat enpresak enpresen aldi baterako elkarte bat formalki eratzeko konpromisoa aurkezten badute, helbide bakar bat aurkeztu beharko dute jakinarazpen eta mezuak jasotzeko ondorioetarako.*

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II. ERANSKINA.- ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena **NAN-IFZ**

	Nire izenean
	Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	**Erreferentziazko kodea**
Erabilitako sukaldeko olioa gaika biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua	ZK 2020-03

Adierazitako kontratazio espedientearen inguruan eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, honako **ESKAINTZA EKONOMIKO** hau proposatzen du: **…… €/bilketa-puntu bakoitzeko, gehi…… €, BEZaren %10ari dagokiona. Guztira: ……..€/bilketa-puntu bakoitzeko.**

Lekua eta data:

Enpresaren izena	*Sinadura*